

## JAINKO BIZIKIZUNAK GURE GIZARTEAN

### I. Jainko bizikizunak

Bizikizun itza emen erderatiko “esperientziaren” ordeez uler-tzen dogu. Bizikizunak, berez, gaztelananiazko “vivencia” (fait vécu) itzuliko leuke. Zentzu onetan bizikizuna subietiboagoa izango litzake. Eperientzia obietiboagoa, edo ez bata ez bestea gogoan artzen ez dituana.

Ain erreza eta argia dala uste izan arren, (eta, izan be, “es-perientzia” argia ez bada, zer dago argirik?), filosofia istorian eztabaidatua eta arakatua izan da ideia au. Guk emen errian erabilten dan zentzutik urrean erabiliko dogu. Filosofikoki be, azken baten, ori da bere zentzurik egokiena: aurrean dagoana, berez eta zuzen emoten jakuna. Nik orain maia onen esperien-tzia daukat, areto onen esperientzia. Jakiña, maia au maiatzat artzeko, prozesoa izan da, eta zentzun orretan oraingo espe-rientzia au ondorioa da, frutua. Baiña, prozesu ori be esperien-tziaren bidez eta esperientziaren barruan gertatu da, eta orain-go errealitate au (maiatzat daukagun izate au) aurrean dago, esperientzian dago.

Esperientzia ideia eta errealitatea Jainko bizikizunera aldatzen dancan, badakigu arazoa sortzen jakula, eta sortu bear dauala. Jainkoaz ez da beste izateetaz daukagun esperientziarik, biziki-

zunik. Zentzun konkretu, uniboko (adiera bateko) orretan, ez da Jainko esperientziarik. Jainkoa fedea esperientziaren kontra-koa dala ere esan daiteke arrazoi osoz. “Jainkoa ez dau iñoiz iñork ikusi” (1Jn 4,12). Olan izan bear dau, gaiñera: ezin daiteke izan beste esperientzien ondoan dagoan Jaungoikoa. Ez litzake Jainkoa izango, izate partikular bat baiño.

Au olan dala be, gaurko teologian ez da alhora utzi nai “esperientzia” itza Jainkoaz eta siñismenaz dagianean. “Fedea esperientzia bear dau” (Lohfink, Würzburg 1977). Egia da, barriro autortzen dogu, itz orrek, Jainkoari ezartean, au edozein gauza edo sentimenturekin naastatzeko arriskua daua. Baiña, bizikizun bako fedea, zer litzake? Non geldituko litzakez, esate baterako, Alkartasun Barrian ain azpimarraturiko Espiritu bizikizunak?

Zer esan nai dogun Jainko-bizikizunaz, fede-bizikizunaz, da emen garrantzitsua.

A) Leenengo, izan daiteke fedea bera dan bizikizuna, au da subiektiboki artuta. Fedea izatean, Jainkoagaz artuemonak izatean, erlijio bizitzan, ideia, sentipen, barne-egoera batzuk izaten dira: esate baterako, bakea, poza, konfiantza, bildurra, kezka, askatasuna, estutasuna, zalantza, ziurtasuna, oztasuna, beroa, konpromisoa, etabar. Argi dago zentzu onetan, naita naiezkoa dala bizikizuna, zelanbaiteko esperientzia izatea.

Ildo berean sartu bear da fede-bizitzan guztiz garrantzitsua dana: erabagi personala, parte-artze personala. Ez kanpotik emona, eratorria, pasiboki artua. Fedea zentzun onetan be bizikizun, esperientzia, izan bear daua argi dago.

Zentzun subiektibo eta soziolojiko onetan, esaten da gaur, modernidade-ondoren eta kristautasun-ondoren, dogmatiku ez dan Jaungoikoa asmatzen dala, dotriñan eta praktikan gitxi esijitzen dauana, indibidualismo, emozio eta atsegiñaren Jaungoikoa. Zentzun onetan ulertu bear dira kristautasun istorian eta beste erlejiñoen istorian izan diran Jainko inguruko bizikizun eta irudiak.



B) Fede-bizikizuna objektiboki be artu daiteke. Fedearen obietoa (zelanbait esateko), Jainko-mundua bera, bizi eta esperimentatu. Eleiza tradizioan au geiago alboratua eta zapuztua izan da, fedearen izate jatorra zaintzeko. Santo Tomasen irakatsia ezaguna izan arren: fedeak Jainkoa ikutzen dauala, Jainkoagana eltzen dala (II-IIae, q. 85, art. 5c ). *Baiña au ez zan esperientzia ideiare barruan ulertzen izan, fede zeatz baten barruan baiño, eta fede zeatz au geiago esperientziaren kontra ulertuz. Fede orretan gertatzen zana ez zan esperientziaz baliatuz azaltzen. Fedea eta Jaungoiko bera, zelanbait, esperimentatzea mistikuentzat uzten zan (emen baiña arazoa sortzen zan, urtenbide bakoa: Zelan azaldu bizikizun ori fede bizitza barruan?).*

Izan daiteke Jaungoikoa “entzuna” bakarrik? Izan daiteke Beragango fedea konklusio logikoa bakarrik (astronomiako ezarpen batzuk egiten diran lez)? Ala Jaungoikoak, gizonarentzat Jaungoikoa bada, eta dalako, ez ete dau presentziaren bat izan bear , ez ete dau Jaungoiko lez “agertu” bear? Fedearen gaiñeko pentsaketa gaur au onartzera makurtzen da. Zer da fedea? Erantzun daiteke: “Misterioaren bizikizuna”. Edo “Jaungoikoarekiko” istoria barruko bizikizuna. Jakiña, orduan zer dan misterioa eta zer Jaungoikoa itaunduko da. Misterioa, guretzat, Jaungoikoa esateko beste itz bat da: inguratzen, eratzten, zertzen gaituan errealidade azkenbakoa eta personala. *Jaungoikoa misterio dala esatean ez dala edozein persona, ez dala aurrean daukagun zer partikular bat adierazi nai da.*

Beraz, esperientzia itza erabiltean Jaungoikoaren zelanbaiteko presentzia emon gura da aditzera. Errez iragarten dan bezala, zentzun zabal eta analojikoan darabilgu itza. Baiña berau erabilliaz, bizikizunak benetakoak dirala esan nai dogu, ez subjektiboak edo soziolojikoak bakarrik. Jaungoikoren presentzia gertatzen dala eurretan. Jaungoikoagana esplizitoki eltzea, aurrean daukagunaz konturatzea dala esan daiteke, edo izena emotea, izendatzea. “Aurrean”: geure esistentzian esan nai

dau, geure giza-bizitza orizontean. Bere barruan bizi ta mobitzzen gara, baiña ez gara, ez argi, esplizitoki konturatzen. Esperientzia guztiz bestelako ori zelakoa dan, edo gure eguneroko beste esperientziagaz zerikusirik daukan jakiteko, geure erralidade erlijiosora jo bear dogu.

Jaungoiko ideiak, edo errealdadeak, iges egiten deuskula esango dogu, egiaz. Baiña baita giza ideiak be. Jaungoikoa gizakiaren definizio dogu. Jaungoikoaz dagigunean gizakiaz diardugu. Feuerbach-ek Jaungoikoa gizakiaren proiektzioa dala esan eban. Arek psikolojikoki ulertu ebana guk teolojikoki eta metafisikoki baieztu daikegu. Ez proiektzio psikologiko utsala, gizonaren izate egiazkoa baiño. Jaungoikoa kenduz gizona berra kentzen da. A desagertuz, gizona desagertzen. Au dogu nihilismoa. Etika, eskubide positibo uts eta politika biurtzen da. Mundua administratzeko era. Ez dago baliorik, gizakiak berak jartzen dituanak baiño ez.

Geroago ta argiago ikusten dogu Jaungoikoren zoria gizakiaren zoria dala. Jaungoikoaz dagigunean gizakiaz dagigu. Jaungoiko errealak egiten dau gizakia erreala.

Orregaitik, Jainko arazoa guztiz desagertuko balitz, benetan gizona abere arrazoidun eta tekniku uts biurturik geldituko litzake, munduko egoera bere zientziaz aalik eta ondoen egokitzen dauana. Baiña azken haten abere soilla. Arrazoa instrumentala bakarrik izango litzake, ain zuzen be munduko egoera aalik eta ondoen egokitzen dauana, natur-legiak menperatuz. Abereek be egiten dabe beste orrenbeste, euren esparru estuagoan. Zer litzake gizonaren diuntasuna, eskubidea deritxoguna, etabar? Konbentzioak. Jakiña, bat da Jainko itza desagertzea, eta beste Jainko-bizikizuna era guztietan desagertzea. Orregaitik, Jainko arazoa ez da desagertuko, gizakiaren arrazoiak asmatu egiten daualako, orretantxe gizaki izanez.

**II. Non asmatzen da** (bizikizuna esateko beste era bat) gure artean Jaungoikoa, non dago "aurrean"? Ausarta da oni erantzutea, baiña adibide eran beintzat zerbait esan geinke.

1. Presente gizakiaren duintasuna asmatzean. Gizakiagan absolutoa asmatzen da duintasun bizikizun orretan. Gizakiaren balio azkenbakoa eta ikutu-eziña. Ez da konbentzioaren ondorioa. Ez da alkar-konbenentziaren frutua. Aurrean daukadan gizakia personatzat asmatzen dot eta bere eskubidea nire erabagi guztiak baiño leenago dagoala. Siñestedunak Absoluto ori Jaungoikoa dala diño, eta, beraz, onen presentzia asmatzen dau gizakiaren duintasun absolutoan. Jaungoikorik ez dala esatean, gizonagan ez dagoala absolutorik esaten da. Siñestedunak izena ezarten deutso (izen personala, Jaungoikoa) persona intuizio onetan gertatzen danari. Siñesteduna ez danak, nai ta izen ori ezartera ez eldu, jarraitzen dau intuizio bardiña izaten, eta, beraz, zelanbait, inplizitoki, guretzat, Jaungoikoaren bizikizuna izaten.

2. Duintasun ori ukatzen dan lekuan. Alderdi batetik, Jaungoikoaren ausentzia geien asmatu dan lekua, eta orregaitik Jaungoikoa ukatzeko arriskurik andiena eskeintzen dauana. Egitez, bai pentsalariek eta bai erritarrek giza oiñazearen ondorioz, zalantzan jarri edo utzi dabe Jaungoikoango siñismena. Munduko txarra, gizakia birrindu eta desegiten dauan sufrimendua eta zoritxarra. Bigarren Mundu-guda barruko "holocausto" (shoah), erre-opariaren errealidadea ezagutu zanean, ea filoso-fiak jarraitu eikean, ea otoitzak eta fedea jarraitu eikeen, galde-tu zan. Auschwitz-en ondoren siñestu daiteke Jaungoikoagan?, itaundu zan. Gure gaurko egiteen ezagupena eta istoriaren izua-ren ezagupena iñoiz baiño zabalagoak dira eta euren zama guz-tiagaz jausten dira gure kontzientziaren gaiñera.

Leenengo begiradan, Jaungoikoaren kontrako erasorik gogorrena dirudiana Aren esperientziaren leku biurtu daiteke be-arbada, geure kontzientzian sakonago bildu ezkeru. Giza-bizi-tza, historia osoa, Jaungoikoaren bearrizanaren oiua da. Ez do-gu onartzen istoriaren injustizia, biktimak betiko galduak izatea. Ori, zuzentasunaren zentzuna daukagulako. Ez bakarrik zuzenak izan bear dogula (moral), errealidadeak zuzena izan

bear dauala baiño (metafisika). Edo, errealidadea (azkenez, egiaz) zuzena dala, zuzentasuna badala. Onak, ez txarrak, urteten dauala irabazle. Guretzat au Jaungoikoa deitzen deitsogunaren bizikizuna da. Eta orregaz au be esaten dogu: zuzentasuna ez dala aurpegi bako azken oreka, edo lege itsuaren azken betetzea, aurpegi bat baiño, onartu, poztu, maitatu, bete eta zoriondu egiten dauan aurpegia.

3. Presente aldentzean, estaltzean. Orain esan doguna aldegitte aparteko baten presentzia izan da. Baiña or batez be geure kontzientziaren bidez egiten da presente Jaungoiko desagertua. Injustiziaren oiua geure kontzientzian entzuten dogu. Baiña aldegitte au beste urruntze zabalagoaren barruan dagoala esan daiteke. Injustiziarik ez balego be, edo, beintzat, injustiziatik aparte be, asmatzen da Jaungoikoren aldegittea. Aldegitte au buru-eritziz eta lasaitasunez bizi daiteke. Ez dogu egoera au orain gogoan, ez dogu-ta egoera orretan Jaungoikoaren presentziarik aurkitzen. Ostera, aldegittea era arduratsuz eta billarian bizi daiteke. Jaungoikoa desagertzea, eta, beraz, danaren ezereza izu larriaz asmatzen dala. Bizikizun orretan, azpian, ezereza onartu eziña dala ikusten dala uste dabe pentsalari batzuk. Itzal baten antzera, estaltzean bertan presente egiten dala Jaungoikoa. B. Welte-k "Ezerezaren argia" (Das Licht des Nichts, Düsseldorf 1980) liburua idatzi eban. Ezereza bera asmatzea Jaungoikoa asmatzea dala esanez. Izuan bertan, beintzat, positiboak izan bear dauala agertzen da. Ezereza eziñezkoa dala; berezkoa positiboa dala, Jaungoikoa izatea. Aren presentzia "ain zuzen be aldegittean agertzen da", "presente billatzean eta billatzeagaitik, irrikan eta irrikagaitik" (Gabriel Amengual, *Presencia elusiva*, Madrid 1996, 256 eta 261 or.).

4. Erruki bizikizuncan. Errukia maitasuna bera da giza zoritxarraren aurrean. Eta maitasuna erruki bizipenean bere izakera garbira eltzen da. Aren bizikizuna dauanak gizakiaren dignidadea asmatzen dau, eta, au zoritxarraren azpian dagoanez, maitasunak berau dau bakarrik gogoan, onegan amaitzen da,

obari personalik itxaron barik. Errukizko maitasuna Maitasuna dan Jaungoikoaren agerpena da, Aren izatean parte artzea, gure bidez Aren munduratzea, presente egitea.

5. Itxaropen bizikizunean. Gizakiak itxaropen partikularrak ditu bere bizitzan. Geiago edo gitxiago. Berez, bizitzaren esperientziaz eta bizitzan gora egiñaz, geroago eta itxaropen partikular gitxiago agertzen dirala esan bear. Aukerak geroago eta eskasagoak dira. Estutu egiten da bizitza zerumuga.

Bizitzan zear, eta bizitzan gora egitean, itxaropen partikular guztien azpitik beste itxaropen bat gelditzen da. Au da, itxaropen partikularrak itxaropen orizontearen barruan kokatzen dira, or gauzatzen edo ezerezten dira. Baiña itxaropen orizonte onek or jarraitzen dau areek igartu eta desagertzean. Betikotasunaren eta azkenbakoaren itxaropena dala esango dogu, nai ta berba orreek ez esan, edo ukatu egin be bai espreski. Itxaropena Jaungoikoaren beste izen bat da. Egia da personak guzti au ukatu daikela, ez dagoala ezetariko itxaropenik esanez. Baiña guzti ori itxaropen partikularren esparrua izan daiteke, eta bere ukatzeak bizitzaren aurreko protestaren adierazpideak izan. Itxaropenaren zantzuak argiagoak izatea nai leuke, guk guztiok legez. Baiña benetan bere izateaz, esistentziaz, azken itxaropena ukatzen dauala ezin daiteke orregaitik esan. Ez dau espresaten benetan bere barnean jazoten dana. Itxaropen bako gizakia ilda dago. Guretzat itxaropen onen presentzia, barriro, Jaungoiko bizikizuna da.

6. Otoitz bizikizunean. Orain arteko bizikizunak, eta antzera bearbada aipatu daitekezan beste batzuk, zearkakoak dirala esan daikegu. Orain otoitza aipatzean, zuzeneko bizikizuna dogula aurrean esan daiteke. Gure otoitz ekintza Jainkoarekiko zuzeneko bizikizuna dala esan nai dot. Jaungoikoa bera, or be, beti geratzen da zearkako bizikizun ( "zearkako": ez dago beste "objektoak" legez aurrean). Jainkoaganako gure aalegiña zuzenekoa dogu otoitzean. Fedea, erlejiñoa, otoitzean dator zelanbait bera izatera, "akto" biurtzen da. Badakigu gure



otoitza, egite konkreto eta zeatza danez, medio bat dala, egite bat ain zuzen, baiña otoitzean egin eta lortu nai doguna, sako-nago, beste zer bat da: Jauna bera aurkitzea. Gure egite danez, giza egiteek daben anbiguetatea dauka. Baiña Jainko-billakari garanez, ez daukagu, billakari zuzenekoak garanez, beste bi-derik. Otoitza bera da-ta Jainko billaketa zuzenekoak.

Baliteke isiltasunik andiencan gertatzea, utsunerik andiencan. Eta bizitza guztian eziñaren eta utsaren bizikizuna izatea. Ausartak izan bear dogu, eta murgildu bakartade orretan. Ezin daikigu iñork isiltasun eta bakartade ori kendu, Jaunak berak baiño. Gure otoitza oiua, deadarra, edo isilla ( pozkario, esker on eta goralpen izatez gainera). Baiña azken baten, orra sartu bear dogu. Eta azken isiltasun orretan, norbera bakean emote-an izan daikegu Jaungoikoaren bizikizuna.

### **III. Gure gizartean non gertatzen olakorik?**

Aipaturiko bizikizunak leenengo ta bein eguneroko bizitzan gauzatzen dira, bakoitzaren eta taldeen bizitzan. Beraz, ia ezin daiteke ze momentutan jazoten dan zeaztu, ez dira argi izendatu daitekezan gauzak eta. Bizitza osoa, bere osotasunean, da garrantzitsua, eta bizitza orren barruan gertatzen dira Jaungoiko bizikizunik garrantzitsuenak.

1. Gizarteko egoerea kontraesanez eta kontraegitez beteri-koa dogu guztiz. Alderdi batetik or ditugu, gerrak, erailketak, ume-galtzea, munduko gose eta miseria egoerea, ume eta adi-ñekoetan. Gaitz da or gure gizarteak giza duintasun azkenba-koaren bizikizuna dauala benetan esatea. Ain errez uzten ditu-gunez ilten edo miseri gorrian sufritzen. Baiña beste alderdi batetik, esan daiteke giza eskubideen defentsa unibertsa-geiagotzen doala gizarte kontzientzian, emengo eta urruneko gizakien eskubideak. Gure artean sensibilitate orren agergarri ditugu ONGak, marjinatuen aldekoak eta Garapen bidean di-ran errialdeei laguntzekoak.



2. Bake egarria eta ekimenak. Besteen pentsakera eta barrua ulertu bearraren bizikizuna. Errien arteko artuemonak geroago eta berezkoago eta unibersalago gizarte kontzientzian agertzea. Gizakiaren duintasunaren bizikizun dirala, bizikizun orren zabalakuntza, sendotzea, argiratzea, erakusten dabe. Nor bakoitzarekin gertatzen dan bezala, besteakana irekitzea ez da norbera galtzea, errealizatzea baiño. Bardin esan bear da erriei buruz, norbera izanda irekitzen dira besteakana, eta irekitzeak norbera izatea eskatzen dau; baiña, batera, norberaren izatea irekitzean errealizatzen da. Etorkiñak dirala, edo urrunekoen eskubideak dirala, sensibilitatea eta ekintzak biziagoak dira. Oso egokitzen edo bearrezkotzen eta maitasuna dan Jasungoikoaren bizikizun-tzat artu bear dira, mirestu eta lagundu.

#### IV. Zelako Jaungoikoa

Esandakoan ere agertzen da zelako Jaungoikoa asmatzen dan gaur gure gizartean, edo beintzat norantza doan bizikizun au. Barriro oartarazi nai dot, ez dala emen soziologia egiten: geure kristau fede ikuspuntutik jatorra dana azpimarratu gura dogu. Beraz, ez ditugu egitezko jokerak jasoten, egiazkoak deritxegunak baiño.

1. Jaungoiko aundiagoa eta urbillagoa. Gure teoloji tradizioan "trazendentzia" esaten dana. Munduaren parte ez dan Jaungoikoa. Au guztiz sustraitik artuta, eta, beraz, ez da parte munduan zer egin bear dan bakoitzean aginduz eta erabagiz. Alderdi edo zentzu onetan mundua bakarrrik dago eta doa. Baiña, batera, urbillago dan Jaungoikoa: mundua osorik bere gain eta biotzean dauana, mundua jasan egiten dauana, munduaren zoria bere zoria dauan Jaungoikoa. "Jaungoikoa maitasuna da" kristau baieztapena (1Jn 4, 8) ez da esaera piadoso bat, subietibidade bakarrentzat poz-bide litzakena, benetako baieztapen objektiboa baiño. Trazendentzia ondo pentsatsea Jainkoa bera ondo pentsatzea da (amaibako aalegiña). Baiña

bardin esan bear da Aren munduarekiko urbiltasunaz, batez be gizakiaren espirituan.

2. Jaungoiko gizakorra, gizakia eta gizadia gizatu, umanizatu egiten dituan Jaungoikoa. "Gizakiaren bizia Jaungoikoaren aintza" (s. Ireneoren esaldia) egia teologiko sendotzat artuz. Gizonaren etsai litzaken Jaungoikoa, gizonaren sufrimentuaz gorralpena artuko leuken Jaungoikoa, edo geure Jaungoikoa eta besteen kontrakoa litzakena, gudak eta fanatismoak zuri-tzen dituan Jaungoikoa, idoloa izan dira eta dira. Benetako Jaungoikoak isilik jasan ditu gizakiaren idolo orreek, munduko beste gorabeera guztiak isilik eroan dituan lez. Azken baten Jaungoikoari ez deutso ardurarik bere aintza eta begiruneagitik, gizakiagaitik baiño: gizakiak asmatu-rik idolo orreek gizakia zapaltzen dabe. Kontzientziaren maitasun eta errukiaren bidez doa benetako Jaungoikoa agertzen. Ori da Jaungoikoa giza espirituan eta espirituaren bidez agertzea. Edo olan da munduan Jaungoikoa: giza espirituan.

Gizatu egiten dauan Jaungoikoak alkartzea sortzen dau, kristau fedearen arauera Bera be alkarte danez, Irutasuna, erlazioa, artuemona. Barne-bakartadean asmatzen dan Jaungoikoa ezin daiteke or geratu, sakontasun orretan alkartasuna sortzen dau nai ta naiez, benetako bizikizuna bada. Egia da alkarte erak oso ezbardiñak izan daitekezala, euren adierazpideetan. Baiña beintzat "alkartze" itzak diñoana beteko da, bizikizun jatorra bada.

Au ere esan bear da, gure itzak beti ere anbiguoak eta erdizkakoak diranez: Umanizatzen dauan Jaungoikoa beti da trazendentea, Jaungoiko, eta orrela bakarrik umanizatu daikc. Ez idolo txikia, zokotxo bat beteten dauan jainkotxua, gauzatxu majikoa. Bera da Bearrezko Bakarra, guztiaren iturri eta norantzakoa, giza itxaropen guztien itxaropena, gurtza eta adorazioa dagokion bakarra. Eta orrela bakarrik gizakiaren adiskide eta lagun garbi utsa.

*Luis Arostegi*